Hona hemen Fundazioko Batzorde Nagusiaren 2018ko eta 2017ko ekitaldietako emaitza banatzeko proposamena:

BANAKETA OINARRIA	2018	2017
Ekitaldiko soberakina (Etekina)	(40.133,75)	50.322,63
APLIKAZIOA	2018	2017
Aurreko ekitaldietako Soberakin negatiboetara	(40.133,75)	0,00
Borondatezko erreserbetara	0,00	50.322,63

(4) Balorazio arauak eta erregistroa

Honako hauek dira Fundazioak 2018ko ekitaldirako urteko kontuak prestatzerakoan erabili dituen balorazio arau nagusiak, indarrean dagoen legeriaren arabera:

4.1. Ibilgetu ukiezina-

- Hasiera batean, duen erosketa kostuaren arabera baloratu da ibilgetu ukiezina.

Hasierako azterketaren ondoren, ibilgetu ukiezina baloratzeko, bere kostua hartzen da kontuan eta kostu horri metatutako amortizazioa kentzen zaio eta, hala badagokio, hondatzeagatik erregistraturiko zuzenketen zenbateko metatua.

- Ibilgetu ukiezin bakoitzerako aztertu eta finkatu egin da bizitza erabilgarria mugatua ala mugagabea den.

Bizitza erabilgarri zehatza duten aktibo ukiezinak sistematikoki amortizatzen dira, haien bizitza erabilgarriaren eta hondar balioaren arabera zenbatetsita. Aplikatzen diren amortizazio metodoak eta aldiak ekitaldi bakoitza ixtean aztertzen dira, hala badagokio, etorkizunera begira doitu. Honako hauek dira kalkulaturako bizitza erabilgarri urteak:

	Kalkulatutako bizitza erabilgarri urteak
Aplikazio informatikoak	3 - 15

4.2. Ibilgetu materiala-

- Oro har, erosketaren prezioaren baitan baloratzen da ibilgetu materiala.

Hasierako azterketaren ondoren, ibilgetu ukiezina baloratzeko, bere kostua hartzen da kontuan eta kostu horri metaturako amortizazioa kentzen zaio eta, hala badagokio, hondatzeagatik erregistraturiko zuzenketen zenbateko metatua.

- Ibilgetuko ondasun baten balio hondatzeari dagokionean, 2 maila bereizi behar dira alde aurretik:

Diru fluxuak sortzen dituzten ibilgetuko ondasunak: ondasunak eskuratuz edo zerbitzuak emanez etekin bat eskuratzeko edo errendimendu komertzial bat sortzeko edukitzen direnak.

Diru fluxuak sortzen ez dituzten ibilgetuko ondasunak: errendimendu komertziala sortzea ez den beste helburu baterako edukitzen direnak, hala nola, aktibo horiek sortzen dituzten ekonomia fluxu sozialak, gizartearentzat onuragarriak, hauxe da, haien etekin soziala eta zerbitzu ahalmena.

Aktiboen helburua argi ez dagoenean, eta irabazi asmorik gabeko erakundeen helburu orokorrak kontuan harturik, diru fluxurik sortzen ez duten aktibotzat hartuko.

Diru fluxuen sortzaile gisa identifikaturako ondasunak direnean, 1514/2007 Errege Dekretuan narriadura, baja eta trukeetarako aurreikusitako Kontabilitate Plan Orokorreko irizpide orokorrak aplikatuko dira.

Diru fluxurik sortzen ez duen aktibo baten hondatzeak berarekin dakar aktibo baten zerbitzu ahalmena galtzea. Hori gertatuko da bere kontabilitate balioa bere zenbateko berreskuragarria baino handiagoa denean, eta balio berreskuragarritzat joko da bi kopuru hauen arteko balio handiena: batetik, bere arrazoizko balioa ken salmenta kostua, eta bestetik, erabiltze balioa.

- Erakundeak ekitaldian zehar egindako lanek eta konponketek sortutako gastuak dagozkien gastuen kontuetan kargatuko dira. Ekoizpen ahalmena edo ondasunen bizitza erabilgarria luzatu edo handitzen dituzten zabalte edo hobetze kostuak aktiboari gehitzen zaizkio, haren balioa handituz. Gastu horien zenbatekoa uneko ibilgetu materialaren kontuetan kargatzen da, eta Fundazioak bararentzat egindako lanen sarrera partidan egiten da abonua.
- Ibilgetu materialean egindako konponketa handien kostuak ordezkapen gisa hartzen dira gertatzen diren momentuan, eta hurrengo konponketa egin arteko denboran amortizatzen

dira; ibilgetu horren kontabilitate balioan jarrai lezakeen konponketarekin lotutako edozein zenbatekori baja ematen zaio.

- Ibilgetu materialeko osagaien amortizazioa era linealean egiten da, martxan jartzeko prest daudenetik zenbatesten zaion bizitza erabilgarrian zehar, eta hondar balio nulua dutela irizten da, bizitza erabilgarriaren urteen arabera:

	Kalkulatutako bizitza erabilgarri urteak
Instalazio teknikoak eta makineria	6,6 - 15
Bestelako instalazioak, tresneria eta altzariak	6,6 - 15
Bestelako ibilgetuak	3 - 15

4.3. Berezko jardueraren kredituak eta zorrak.

Arau hau honako hauei aplikatuko zaie:

- a) Berezko jarduerengatiko kredituei: berezko jardueragatik onuradunen, erabiltzaileen, babesleen eta afiliatuen aurrean sortzen diren kobrantza eskubideak dira.
 - Babesleengandik, afiliatuengandik edo beste zordunengatik datozen epe laburreko kuotek, opariek eta bestelako laguntzek kobrantza eskubidea sortzen dute eta duten balio nominalaren baitan kontabilizatzen dira. Epemugak epe hori gainditzen badu, egun duten balioaren baitan aitortuko dira. Kredituaren egungo balioaren eta balio nominalaren arteko aldea finantza sarrera gisa erregistratzen da emaitzen kontuan, amortizazio kostuaren irizpidearen arabera.
 - Berezko jarduera aurrera eramatean 0 interes tasarekin edo merkatuko interesaren azpitik dagoenarekin jasotako kredituak arrazoizko balioaren arabera kontabilizatzen dira. Arrazoizko balioaren eta emandako zenbatekoaren arteko aldea emaitzen kontuan gastu gisa aitortzen da hasiera batean, duen izaeraren arabera. Lehenengo aitorten horren ondoren, egindako deskontua atzera bueltatu izana finantza diru sarrera gisa kontabilizatzen da emaitzen kontuan.
 - Ekitaldia ixtean -gutxienez- beharreko balorazio zuzenketak egiten dira aktibo horien balioan murrizketa egon dela guttiz nabarmena bada, eta kostu amortizatuaren irizpidea aplikatuta kontabilizatzen dira.
- b) Berezko jarduerengatiko zorrei: berezko jarduerak aurrera eramateko erakundearen onuradunei emandako laguntzek eta bestelako esleipenek sortzen dituzten zorrak dira.
 - Epe laburrera erakundeak bere onuradunei emandako laguntzek eta bestelako esleipenek pasibo bat sortzen dute, haien balio nominala aintzat hartuta. Mugaegunak epe hori gainditzen badu, egungo balioaren baitan aitortzen dira. Egungo balioaren eta zorraren balio nominalaren arteko aldea finantza gastu gisa kontabilizatzen da emaitzen kontuan, kostu amortizatuaren irizpideari jarraiki.
 - Laguntza hainbat urterako bada, pasiboa hitzemandako zenbatekoaren gaur egungo balioaren baitan erregistratzen da, derrigorrez eta baldintzagabe. Irizpide hori bera aplikatuko da laguntzaren luzapena ez dagoenean aldian aldiko ebaluazioen baitan, baizik eta izapide administratibo edo formal hutsak betetzearen baitan.

4.4. Finantza baliabideak-

Balantze laburtuan, finantza baliabideak epemugaren arabera sailkatzen dira, eta epe laburreko zortzat jotzen dira 2019ko abenduaren 31 baino lehenagoko epemuga (12 hilabete) dutenak.

a.) Finantza aktiboak

Honako hauek dira finantza aktiboak: esku dirua, edo beste enpresa baten ondare tresna bat; eta horiez gain, kontratuzko eskubide bat, bidea ematen duena eskudirua edo beste finantza aktibo bat eskuratzeko, edo hirugarrenekin ustez baldintza onuragarrietan aktiboak edo pasiboak trukatzeko.

Fundazioaren finantza aktiboen balorazioa honako sailkapen honen arabera egiten da:

*** *Esku dirua eta bestelako baliabide likido baliokideak***

Atxikitako egoera balantzearen epigrafe honen barruan sartzen dira kutxan eta bankuetan dagoen esku dirua, ageriko gordailuak, eta kutxan azkar egin litezkeen bestelako inbertsioak, likidezia handikoak eta epe laburrekoak, beren balioa aldatzeko arriskurik ez dutenak.

*** *Kobratzeke dauden maileguak eta partidak***

Epe luzerako epemuga dutenak hasiera batean merkatu kostuaren baitan erregistratzen dira, eta ondoren kostu amortizatuan baloratzen dira. Sortutako interesak galdu-irabazien kontuan kontabilizatzen dira, eta interes tasa efektiboa aplikatzen zaie.

Epe motzeko epemuga dutenak eta kontratuzko interes tasarik ez dutenak, langileei emandako aurrerakinak eta maileguak, kobratzeko dibidenduak, eta ondare instrumentuen gainean eskatutako ordainketak, horiek guztiak duten balio nominalaren baitan baloratzen dira.

*** *Epemuga arte mantendutako inbertsioak***

Honako hauek dira: epemuga bat ezarria duten zor balioak, zenbateko zehaztu edo zehaztu gabekoak, merkatu aktibo batean negoziatzen direnak, eta Fundazioak bere epemuga bete arte mantendu nahi eta ahal dituenak.

Duten kostu amortizatuaren baitan kontabilizatzen dira. Sortutako interesak galdu-irabazien kontuan kontabilizatzen dira, interes tasa efektiboa aplikatuz.

b.) Finantza pasiboak

Jaulkitako, jausitako edo onartutako finantza tresnak finantza pasibo gisa sailkatzen dira, osorik edo zati batean, baldin eta haien errealitate ekonomikoaren arabera, enpresari kontratuzko

obligazioa, zuzena nahiz zeharkakoa, sortzen badiote esku dirua nahiz bestelako finantza aktiboa emateko, edo hirugarrenekin finantza aktiboak edo pasiboak trukatzeko ustez aldekoak ez diren baldintzetan.

Fundazioaren finantza pasiboen balorazioa honako sailkapen honen arabera egiten da:

**** Ordaintzeke dauden zorrak eta partidak***

Maileguak, obligazioak eta antzekoak jasotako zenbatekoaren baitan erregistratzen dira hasiera batean, transakzioan izandako kostu garbiaren arabera. Finantza gastuak, likidazioak edo itzultzean ordainduko diren primak eta transakzio kostuak barne, galdu-irabazien kontuan kontabilizatzen dira, interes efektiboaren metodoan erabilitako sortzapean irizpidearen arabera. Sortutako baina likidatu gabeko zenbatekoa liburuetan gehitzen da, sortzen diren ekitaldian likidatzen ez diren heinean.

Epe laburrerako epemuga duten eta kontratuzko interes tasarik ez duten merkataritza eragiketetatik etorritakoak, eta baita hirugarrenek eskatutako partizipazioen gaineko ordainketak ere, baldin eta haien ordainketa epe laburrean egitea espero bada, duten balio nominalaren baitan baloratzen dira.

Epe luzerako epemuga dutenak hasiera batean merkatu kostuaren baitan erregistratzen dira, eta ondoren kostu amortizatuan baloratzen dira. Sortutako interesak galdu-irabazien kontuan kontabilizatzen dira, eta interes tasa efektiboa aplikatzen zaie.

c.) Ondare tresna propioak

Halakotzat hartuko dira funts propioen barnean dauden finantza tresna guztiak, bai eta jaulkitako ohiko akzioak ere.

4.5. Izakinak.

Erosketa prezioaren edo produkzio kostuaren arabera baloratzen dira. Erosketa prezioa hornitzaileak fakturatutako zenbatekoa da, zorraren nominalari egindako deskontuak eta interesak kenduta, gehi izakinak beren salmenta lekura iristeko beharrezko gastu gehigarriak, haxe da, garraioak, muga zerga eta erosketari dagozkion bestelakoak, kenduta. Ekoizpen kostuari dagokionez, lehengaien erosketa kostuei eta bestelako kontsumigarrien kostuari honako hauek dagokien proportzioan gehituta baloratzen dira izakinak: produktuari zuzenean egozten ahal zaizkion kostuak, eta produktuei zeharka egozten zaizkien kostuei dagokien proportzioa.

Zaharkitutako produktuak, akasduak edo mugimendu motelekoak izan lezaketen egikaritze balioaren baitan soilik baloratzen dira.

Izakinen gauzatze balio garbia erosketa prezioa edo ekoizpen kostua baino txikiagoa denean, beharreko balioztatze zuzenketak egiten dira, eta emaitzen kontuan gastu gisa erregistratzen dira.

Izakinen balioaren zuzenketa eragin duten arrazoiak desagertzen badira, zuzenketaren zenbatekoa atzera buelta daiteke, eta emaitzen kontuan sarrera gisa erregistratu.

4.6. Sozietateen gaineko zerga -

Irabazi asmorik gabeko erakundeen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriari buruzko apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauak erregulatzen du Fundazioari aplikagarri zaion Sozietateen gaineko zergaren erregimen fiskala.

Erregimen horren arabera, salbuetsita daude bai bere helburu soziala edo helburu espezifikoak betetzeko egiten diren jardueretatik etorritako errentak, eta bai erakunde eta ustiapen ekonomikoen ondare higigarri eta higiezinetatik etorritako errentak, baldin eta lehen aipatutako Arauaren 9. artikuluan definitutako baldintzak betetzen badituzte.

Adierazitakoaren arabera, Fundazioaren ustiapen ekonomikoek bete egiten dituzte Sozietateen gaineko zergan salbuetsita egoteko baldintzak.

4.7. Sarrerak eta gastuak.

- a) Sarrerak eta gastuak sortze irizpidearen arabera egozten dira, edozein dela ere haietatik etorritako moneta edo finantza korrontea gertatzen den unea.
- b) Hala ere, ekitaldia ixtean izan diren mozkinak bakarrik kontabilizatuko ditu erakundeak, eta aurreikusten diren arriskuak eta galerak, berriz, ezagutu bezain laster kontabilizatuko dira, aldi batekoak izan arren.
- c) Ondasunen edo zerbitzuen salmentatik jasotako diru sarrerak haien truke jasotako edo jasoko den ordainaren arrazoizko balioaren baitan aitortuko dira. Garaiz ordaintzeagatik, kopuruagatik edo bestelako arrazoientatik egindako deskontuak murrizketa gisa erregistratuko dira, eta baita kredituen nominalaren interesak ere. Hala ere, Erakundeak barne hartzen ditu urte beteko epemuga baino handiagoa ez duten eta kontratuzko interes tasarik ez duten kreditu komertzialen interesak, diru fluxua eguneratu ez izanaren ondorioa nabarmena ez denean.
- d) Bezeroei emandako deskontuak aitortzen dira eman zireneko baldintzak seguruenik beteko direla antzematen denean, salmenten sarreretan murrizketa gisa.
- e) Etorkizuneko salmenten kontu aurrerapenak jasotako balioaren baitan baloratuta ageri dira.
- f) Erakundeak ematen dituen laguntzak haiek ematea onartzen den unean aitortu dira.
- g) Erabiltzaileen edo afiliatuen kuotak dagokien epean aitortu dira sarrera gisa.

Baliabideak, babesleak eta laguntzak eskuratzeko egiten diren sustapenetatik etorritako diru-sarrerak kanpainak edo ekintzak egiterakoan aitortu dira.

4.8. Hornidurak eta gertakizunak.

- a) Iraganeko gertaeren ondorioz sortu eta egoeren balantzearen datan ageri diren obligazioak, Erakundearentzat ondare kalteak eragin baditzakete eta kitapenaren zenbatekoa eta unea zehaztugabeak direnean, egoera balantzean hornidura gisa erregistratuko dira, obligazioa kitatzeko Erakundeak ordaindu beharreko zenbateko probableenaren gaur egungo balioarekin.

- b) Obligazioa kitatzen denean hirugarren batengatik jasoko den konpentsazioak ez du zorraren zenbatekoa murriztuko; aldiz, kobratzeko eskubide hori erakundearen artxiboan kontabilizatu daiteke, zalantzarik ez badago kobrantza hori egingo dela. Aktibo horren kontabilitate balioa ezin izango da kontabilitatean erregistraturiko obligazioaren zenbatekoa baino handiagoa izan.

4.9. Diru laguntzak, dohaintzak eta legatuak.

Itzuli behar ez diren diru laguntzak, dohaintzak eta legatuak, oro har, zuzenean erakundearen ondare garbian kontabilizatuko dira, eta geroago ekitaldiko soberakinean birsailkatuko dira sarrera gisa, oinarri sistematiko eta arrazionaletik abiatuta, eta diru laguntzaren, dohaintzaren edo legatuaren ondoriozko gastuekin lotuta. Helburu zehatz batekin lotu gabe jasotzen direnak aitortzen diren ekitaldiko soberakinetara joango dira zuzenean.

Itzulgarriak diren diru laguntzak, dohaintzak eta legatuak pasibo gisa erregistratuko dira izaera ez itzulgarria izan arte.

Honako hauek izango dira ekitaldiko soberakinak egozteko irizpideak:

- Diru laguntzak gastu zehatz batzuk finantzatzeko ematen direnean, finantzatutako gastuak sortzen diren ekitaldian egotziko dira sarrera gisa.
- Ibilgetu ukiezin, material edo higiezin inbertsio izaera duten aktiboak erosteko jasotzen direnean: aipatutako elementuei buruz aldi horretan egindako amortizazioaren horniduraren proportzioan egotziko dira edo, hala badagokio, besterentzea edo hondatzeagatik balorazio zuzenketa egiten denean edo balantzean baja ematean.
- Ondare Historikoko Ondasunak erosteko jasotzen direnean: sarreretan egotziko dira, besterentzea edo hondatzeagatik balorazio zuzenketa egiten den edo balantzean baja ematen den ekitaldian.
- Finantza Aktiboak erosteko jasotzen direnean: sarreretan egotziko dira, besterentzea edo hondatzeagatik balorazio zuzenketa egiten den edo balantzean baja ematen den ekitaldian.
- Zorrak kitatzeko jasotzen direnean: kitapena egiten den ekitaldian egotziko dira sarrera gisa.

Patronatukideengandik (Hondarribiko Udala) jasotako diru laguntzek honako helburu hau dute: Fundazioak egindako inbertsioak, funts eskuratzeak eta ekitaldi horretan jarduerak sortzen dituen funtzionamendu gastuak estaltzea. Ekitaldiko soberakinean egozteko irizpideak honako hauek izango dira:

- √ Ekitaldiko inbertsioen % 100 estaltzea, laguntzetan dagokion zatia kapital diru laguntza gisa kontabilizatuz eta emaitzetara egotziz, finantzatutako aktiboek epe horretan jasandako balio galtzearen proportzioan;
- √ Ekitaldiko inbertsioen % 100 estaltzea, dagokion zatia kapital diru laguntza gisa kontabilizatuz. Balio galerarik ez duten aktiboak direnez, besterentzea gertatzen denean edo inbentarioan baja ematean egotziko dira ekitaldiaren emaitzetara; eta
- √ Gelditzen diren laguntzak gastuak ordaintzeko erabiltzea, eta horrenbestez, emaitzetara egotzen diren diru laguntza, dohaintza eta ustiapeneko legatu gisa kontabilizatzea

(5) Ibilgetu materiala, ukiezina eta higiezin inbertsioak

Honako hauek dira balantzearen kapitulu honetan izan diren mugimenduak:

A) Ibilgetu materiala, ukiezina eta higiezin inbertsioak

	Ibilgetu materiala	Ibilgetu ukiezina	Guztira
C)EKITALDI-HASIERAKO SALDO GORDINA 2017	39.069,56	5.110,00	44.179,56
(+) Sarrerak	2.068,90	0,00	2.068,90
(-) Irteerak, bajak edo gutxitzeak	0,00	0,00	0,00
D) EKITALDI-AMAIERAKO SALDO GORDINA 2017	41.138,46	5.110,00	46.248,46
C) EKITALDI-HASIERAKO SALDO GORDINA 2018	41.138,46	5.110,00	46.248,46
(+) Sarrerak	7.214,51	0,00	7.214,51
(-) Irteerak, bajak edo murrizketak	0,00	0,00	0,00
D)EKITALDI-AMAIERAKO SALDO GORDINA 2018	48.352,97	5.110,00	53.462,97
G)AMORTIZAZIO METATUA, EKITALDI HASIERAKO SALDOA 2017	25.167,32	5.110,00	30.277,32
(+)Ekitaldiko amortizaziorako zuzkidura 2017	4.287,35	0,00	4.287,35
(+)Eskuratzengatik edo traspasoengatik izandako gehikuntzaK	0,00	0,00	0,00
(-)Irteera, baja edo traspasoengatik izandako gutxitzeak	0,00	0,00	0,00
H)AMORTIZAZIO METATUA, EKITALDI AMAIERAKO SALDOA 2017	29.454,67	5.110,00	34.564,67
G)AMORTIZAZIO METATUA, EKITALDI HASIERAKO SALDOA 2018	29.454,67	5.110,00	34.564,67
(+)Ekitaldiko amortizaziorako zuzkidura 2018	5.265,10	0,00	5.265,10
(+)Eskuratzengatik edo traspasoengatik izandako gehikuntzaK	0,00	0,00	0,00
(-)Irteera, baja edo traspasoengatik izandako gutxitzeak	0,00	0,00	0,00
G)AMORTIZAZIO METATUA, EKITALDI AMAIERAKO SALDOA 2018	34.719,77	5.110,00	39.829,77
2018 EKITLADI AMAIERAKO BALIO GARBI KONTABLEA	13.633,19	0,00	13.633,19

- Fundazioaren ibilgetuko ondasun guztiak diru fluxurik sortzen ez dutenen artean sailkatzen dira.

(6) Berezko jardueraren erabiltzaileak eta beste zordunak

Balantzeko aktiboko B.II. epigrafean "Berezko jardueraren erabiltzaileak eta beste zordunak" egondako mugimendua honakoa izan da:

Erabiltzaile, laguntzaile, bazkide eta bezte zordun mugumienduak

	Erabiltzaileak	Laguntzaileak	Diru-Laguntza	Guztira
C)EKITALDI-HASIERAKO SALDO GORDINA 2017	5.498,50	0,00	0,00	5.498,50
(+) Sarrerak	88.725,64		369.507,81	458.233,45
(-) Irteerak, bajak edo gutxitzeak	93.777,14		352.234,98	463.284,95
D) EKITALDI-AMAIERAKO SALDO GORDINA 2017	447,00	0,00	17.272,83	17.719,83
C) EKITALDI-HASIERAKO SALDO GORDINA 2018	447,00	0,00	17.272,83	17.719,83
(+) Sarrerak	114.020,84		334.747,41	448.768,25
(-) Irteerak, bajak edo gutxitzeak	108.177,92		350.100,24	458.278,16
D)EKITALDI-AMAIERAKO SALDO GORDINA 2018	6.289,92	0,00	1.920,00	8.209,92

B.II epigrafearen saldoetan, honako hauek datoz taldeko erakundeetatik:

	Erabiltzaileak	Diru laguntzak
A) 2016ko EKITALDIKO HASIERAKO SALDO GORDINA	0,00	0,00
(+) Sarrerak	0,00	260.867,35
(-) Irteerak, bajak edo murrizketak	0,00	260.867,35
B) 2016ko EKITALDIKO BUKAERAKO SALDO GORDINA	0,00	0,00
C) 2017ko EKITALDIKO HASIERAKO SALDO GORDINA	0,00	0,00
(+) Sarrerak	0,00	349.315,39

Erabiltzaile, laguntzaile, bazkide eta bezte zordun TALDEKO mugumienduak

	Erabiltzaileak	Diru-Laguntza
C)EKITALDI-HASIERAKO SALDO GORDINA 2017	0,00	0,00
(+) Sarrerak	0,00	349.315,39
(-) Irteerak, bajak edo gutxitzeak	0,00	349.276,80
D) EKITALDI-AMAIERAKO SALDO GORDINA 2017	0,00	38,59
C) EKITALDI-HASIERAKO SALDO GORDINA 2018	0,00	38,59
(+) Sarrerak	0,00	349.315,39

(-) Irteerak, bajak edo gutxitzeak	0,00	349.276,80
D)EKITALDI-AMAIERAKO SALDO GORDINA 2018	0,00	0,00

(7) Finantza aktiboak

Honako hau da Fundazioaren balantzeko aktiboaren epe laburreko finantza tresnei buruzko informazioa, mailen arabera sailkatua, esku dirua eta antzeko aktiboak kontuan hartu gabe:

Mailak \ Motak	Finantza baliabideak			
	Ondare baliabideak		Maileguak, Eratorriak, bestelakoak	
	2018	2017	2018	2017
Epemuga arte mantendutako inbertsioak	0,00	0,00	0,00	0,00
Kobratzeke dauden maileguak eta partidak	0,00	0,00	8.209,92	17.719,83

Kontabilitate eta Kontu Ikuskaritza Institutuari 2011ko irailean egindako 87. kontsultan esandakoari kasu eginez, Administrazio Publikoarekin dauden saldoak ez dira finantza baliabide gisa sartu.

Bestelako finantza aktiboak

Era berean, kontu korrante eta aurrezki kontuekin osatzen du bere diruzaintza, guztira 122.578,45 euro 2017. urtean eta 8.760,23 euro 2018. urtean.

(8) Finantza pasiboak

Honako hau da Fundazioaren balantzeko pasiboaren epe luzerako finantza tresnei buruzko informazioa, mailen arabera sailkatua:

Mailak \ Motak	Epe luzerako beste zorrak	
	2018	2017
Ordaintzeke dauden zorrak eta partidak	0,00	0,00

Honako hau da Fundazioaren balantzeko pasiboaren epe laburreko finantza tresnei buruzko informazioa, mailen arabera sailkatua:

Mailak \ Motak	Kreditu erakundeekiko zorrak		Eratorriak eta bestelakoak	
	2018	2017	2018	2017
Ordaintzeke dauden zorrak eta partidak			36.035,75	93.221,00

Hona hemen emandako zenbatekoak banakatuta:

Kreditu erakundeekiko zorrak

- Kreditu erakundeekiko zorrak: 0 euro

Eratorriak eta bestelakoak:

- Epe laburreko hornitzaileak: 36.035,75 euro

Kontabilitate eta Kontu Ikuskaritza Institutuari 2011ko irailean egindako 87. kontsultan esandakoari kasu eginez, Administrazio Publikoarekin dauden saldoak ez dira finantza baliabide gisa sartu.

Hona hemen berankortasunari buruzko 15/2010 legeari dagokion informazioa:

Hona hemen merkataritza jardueretan hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epeari buruzko informazioa:

	2018	2017
Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea	30 egun	30 egun

Epemugen araberako sailkapena - E/L FINANTZA PASIBOAK

<u>Epemugak urteetan</u>	
2019	Gainerako urteetan

EPE LUZEKO BESTE ZORRAK	0,00	0,00
-------------------------	------	-------------

(9) Funts propioak

2018. urtean zehar mugimendua honakoa izan da:

	Zuzkidura Fundazionala	Erreserbak	Aurreko Ekitaldiko Soberakina	Ekitaldiko Soberakina	Guztira
C) EKITALDI-HASIERAKO SALDOA 2017	35.000,00		-11.314,50	21.727,89	56.727,89
(+) Sarrerak	0,00	10.413,39	11.314,50	50.322,63	50.322,63
(-) Gutxitzeak	0,00			-21.727,89	-21.727,89
D) EKITALDI-AMAIERAKO SALDOA 2017	35.000,00	10.413,39	0,00	50.322,63	95.736,02
C) EKITALDI-HASIERAKO SALDOA 2018	35.000,00	10.413,39	0,00	50.322,63	95.736,02
(+) Sarrerak	0,00	50.322,63	0,00	-40.133,75	-40.133,75
(-) Gutxitzeak	0,00			-50.322,63	-50.322,63
D) EKITALDI-AMAIERAKO SALDOA 2018	35.000,00	60.736,02	0,00	-40.133,75	55.602,27

Fundazio zuzkidura. -

Hondarribiko Udalak eman zuen Fundazio zuzkiduraren guztizko zenbatekoa, hauxe da, 35.000 euro.

(10) Egoera fiskala

Administrazio publikoekiko saldoak

Honako hauek dira Administrazio Publikoekiko saldoak:

	2018 Ekitaldia	2017 Ekitaldia
<u>Zordun</u>		
Ogasun Publikoa, B.E.Z zordun.	23.468,95	8.951,13
<u>Hartzekodun</u>		
Ogasun Publikoa, PFEZ atxikipen hartzekodun.	2.627,52	2.084,60
Ogasun Publikoa, B.E.Z hartzekodun.	0,00	0,00
	<u>2.627,52</u>	<u>2.084,60</u>

Balio erantsiaren gaineko zerga

Fundazioa BEZaren subjektu pasiboa da. Bere jardueraren barruan ondasunak edo zerbitzuak eman eta jasotzen ditu, kenketa eskubideak sortuz, eta era berean antzeko beste eragiketa batzuk egiten ditu eskubide hori sortzen ez dutenak, prorrata bereziari buruzko arauaren arabera.

Etekinen gaineko zerga

Fundazioak apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauaren zerga erregimena bete behar du. Arau horrek, bertan eskatzen diren baldintzak betez gero, erakunde mota horiek lortutako ia errenta guztiak salbuestea aurreikusten du.

Txosten hau egin den datan, ekitaldi bakar hau dago zabalik agintari fiskalek ikuska dezaten Fundazioaren jarduerak bete beharreko zerga guztiei dagokienean.

Ezin da objektiboki zehaztu etorkizunean Fundazioarentzat zein pasibo eta gorabehera fiskal gerta litezkeen agintariak ikuska daitezkeen ekitaldi guztiak aztertu izanaren ondorioz. Hala ere, Zuzendaritzaren ustez sor litekeen pasiboak ez du askorik aldatuko atxikitako finantza egoera, eta horregatik, ez da inolako hornidurarik erregistratu pasibo eta gorabehera horiei aurre egiteko.

(11) Sarrerak eta gastuak

GASTUAK

· **Hornidurak**

Kontzeptua	2018	2017
Salgaien kontsumoa		
<i>Salgaien erosketak</i>	31.035,95	51.429,70
<i>Salgaien izakinen aldaketa</i>	-5.580,93	-25.319,04
HORNIDURAK GUZTIRA	25.455,12	26.110,66

· **Beste ustiatze gastu batzuk**

Kontzeptua	2018	2017
Alokairuak eta kanonak	0,92	1,00
Konponketak eta zaintza lanak	12.362,10	56.762,10
Langile independenteen zerbitzuak	188.882,20	221.705,91
Aholkularitza	14.019,25	8.961,54
Garraioak	165,24	1.281,00
Aseguru primak	3.032,86	2.647,48
Banku zerbitzuak eta antzekoak	102,17	167,57
Publizitatea, propaganda eta harreman publikoak	6.630,35	11.215,18
Hornigaiak	18.034,85	13.178,19
Bestelako gastuak	66.934,05	57.327,70
Merkataritza eragiketarako behin-behineko zuzkidura	-1.207,05	
USTIATZE GASTUAK GUZTIRA	308.956,94	373.247,67

· **Beste gastu batzuk**

Kontzeptua	2018	2017
<i>Kalte-ordainketak</i>	110.000,00	0,00
BESTE GASTUAK GUZTIRA	110.000,00	0,00

Enrique Lekuona Muñoz jaunaren heriotzari dagokio, honako kalte-ordainketa gastu hau.

SARRERAK

DIRU LAGUNTZAK, DOHAINTZAK ETA LEGATUAK.

Bazkideak edo jabeak ez diren hirugarrenek emandako diru laguntzak, dohaintzak eta legatuak

Fundazioak ez itzulgarritzat hartzen diren zenbait diru laguntza jaso ditu. Horrenbestez, Fundazioaren Ondare Garbiaren barruan kontabilizatu ditu balantzean. Honako hauek dira jaso dituen eta ezaugarri horiek dituzten diru laguntzak:

DIRU LAGUNTZA EMAN DUEN ERAKUNDEA	ZENBATEKOA 2018	ZENBATEKOA 2017	HELBURUA
HONDARRIBIKO UDALA	294.708,34	347.568,29	Arma Plaza Fundazioa finantzatzea
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA	4.800,00	5.000,00	Arma Plaza Fundazioa finantzatzea
EUSKO JAURLARITZA	0,00	15.192,42	Arma Plaza Fundazioa finantzatzea
Partikularrak	0,00	0,00	Arma Plaza Fundazioa finantzatzea
GUZTIRA	299.508,34	367.760,71	

Emaitzetara egozteko irizpideak

Kontabilitate eta Kontu Ikuskaritza Institutuak (KKII) argitaratutako 75 zenbakiko 6. Kantsultan (erakundearen berezko jarduerarekin lotutako diru laguntzak, dohaintzak eta legatuak), egokitzapen arauen bosgarren ataleko 21. balorazio araua kontuan hartuta, ez itzulgarriak direnean, "hainbat ekitalditan banatu beharreko sarrerak" atalean kontabilizatuko dira, eta erakundearen sarrera gisa egotziko dira emaitzetan, duten helburuaren arabera, arau horretan aurreikusitako arauen arabera. Hala, ez da bereziko sortzaileek edo hirugarren batek eman dituen, fundazio zuzkiduratzat hartzen badira betiere.

Bestalde, sortzaileek emandako diru laguntzei, dohaintzei edo legatuei dagokienez, esan behar da ezin dela merkataritza erakunde baten bazkideen edo jabeen irudiarekin parekatu. Horren harira, fundazioen ezaugarria da beren ondarea interes orokorreko helburuetara atxikita dutela modu iraunkorrean (Fundazioei buruzko abenduaren 26ko 50/2002 Legearen 2. artikulua). Era berean, likidazio kasuan, 50/2002 Legearen 33.2 artikulua xedaturikoaren arabera, sortutako ondasunak edo eskubideak fundazioetara edo interes orokorreko irabazi asmorik gabeko erakundeetara zuzendu behar dira, baldin eta beste horiek ondasunak interes horiek lortzeko erasanak badituzte, baita deseginez gero ere. **Hau da, sortzaileek ez dituzte inoiz berreskuratuko jarritako funtsak; izan ere, fundazioa desegiterakoan ez dute inolako eskubiderik izango kitapen baloreari dagokionean.**

Horregatik, fundazio zuzkidurari ez badago (fundazio zuzkidurari buruz Legeak egiten duen kalifikazio juridikoak dio, 50/2002 Legearen 12.4 artikuluan bereziki, fundazioaren helburuetarako modu iraunkorrean sortzaileak edo hirugarrenek emandako ondare edukia duten ondasun eta eskubideak, fundazioaren funts propioetan erregistratu behar direla, bai eraketa unean edo eta bai ondorengo ekarpenetan egindako gehikuntzetan), **irizten da sortzaileek hirugarren gisa jarduten dutela diru laguntzak, dohaintzak eta legatuak ematerakoan,** eta ez da aplikatuko 2007ko Kontabilitate Plan Orokorreko 2. atalaren 18. erregistro eta balorazio araua, baizik eta arau horren 1. atala. Horren harira, 2007ko Kontabilitate Plan Orokorreko arauaren edukia nagusitu behar da, egokitzapen arauetan jasotako berezitasuna kaltetu gabe (arau horiek erakundearen sarreratzat hartzen dituzte galdu-irabazietan jarriak diren eta erakundearen jarduerari lotuak diren diru laguntzak, dohaintzak eta legatuak).

(12) Erakundearen jarduera. Helburu propioetarako ondare elementuak aplikatzea. Administrazio gastuak.

12.(1) Erakundearen jarduera

I. Egindako jarduerak:

1. Jarduera: MARIÑEL ITSASONTZIA

a) Identifikazioa:

Jardueraren izena	MARIÑEL ITSASONTZIA
Jarduera mota	BEREA
Jarduera egin den lekua	HONDARRIBIA

Proiektuaren jarduera izan da Hondarribiko Udalarena den MARIÑEL itsasontzia altxatzea Hondarribiko "Benta" zaharrean, turismo helburuekin.

b) Jardueran erabilitako giza baliabideak:

MOTA	KOPURUA	
	AURREIKUSITAKOAK	EGINDAKOAK
Soldatapeko langileak	0	0

c) Jardueraren onuradunak eta erabiltzaileak:

Hondarribiko Hiria eta bisitan etortzen diren guztiak.

d) Jardueran erabilitako baliabide ekonomikoak:

MOTA	ZENBATEKOA	
	AURREIKUSITAKOAK	EGINDAKOAK
Hornigaiak	0,00	0,00
Jardueraren bestelako gastuak	15.000,00	10.122,82
<u>Gastuak guztira</u>	15.000,00	10.122,82
<u>GUZTIRA</u>	<u>15.000,00</u>	<u>10.122,82</u>

d) Jardueraren helburuak eta adierazleak:

MARIÑEL itsasontzia proiektuaren helburu nagusia da gure arrantzaleek gure hirian arrantzarako erabiltzen zituzten itsasontziak gogoratzea eta iraunaraztea.

2. jarduera: FUNDAZIOAREN BEREZKO JARDUERAK

a) Izaera:

Jardueraren izena	FUNDAZIOAREN BEREZKO JARDUERAK
Jarduera mota	BEREA
Jarduera egin den lekua	HONDARRIBIA

Proiektuaren jarduerak honako hauek dira, besteak beste: dendan produktuak saltzea, Hirigune Historikoan nahiz Guadalupeko gotorlekuan bisita gidatuak egitea, eta foroak eta topaketak aurkeztea.

b) Jardueran erabilitako giza baliabideak:

MOTA	ZENBATEKOA	
	AURREIKUSITAKOA	EGINDAKOA
Soldatapeko Langileak	0	0

c) Jardueraren onuradunak eta erabiltzaileak:

Hondarribiko Hiria eta bisitan etortzen diren guztiak.

d) Jardueran erabilitako baliabide ekonomikoak:

MOTA	ZENBATEKOA	
	AURREIKUSITAKOA	EGINDAKOA
Hornigaiak	0,00	25.455,12
Jardueraren bestelako gastuak	362.986,00	298.834,12
Ohiz kanpoko gastuak	0,00	110.000,00
Ibilgetuaren amortizazioa	0	5.265,10
<u>Gastuak guztira</u>	362.986,00	439.554,34
<u>GUZTIRA</u>	<u>362.986,00</u>	<u>439.554,34</u>

d) Jardueraren helburuak eta adierazleak:

FUNDAZIOAREN BEREZKO JARDUERAK proiektuaren helburu nagusia da Fundazioaren helburua betetzea.

II. Erakundeak erabilitako baliabide ekonomikoak guztira:

MOTA	ZENBATEKOA	
	AURREIKUSITAKOA	EGINDAKOA
Hornigaiak	0	26.110,66
Langileria gastuak	0	0,00
Jardueraren bestelako gastuak	385.986,00	373.247,67
Ibilgetuaren amortizazioa	0	4.287,35
<u>Gastuen guztizko partziala</u>	385.986,00	403.645,68
Erositako ibilgetua	0	2.068,90
Ondasun erosketa		
<u>Baliabideen guztizko partziala</u>	<u>377.986,00</u>	<u>456.892,67</u>
<u>GASTUAK GUZTIRA</u>	<u>377.986,00</u>	<u>456.892,67</u>

III. Erakundeak lortutako guztizko baliabide ekonomikoak:

a) Erakundeak lortutako sarrerak:

SARRERAK	AURREIKUSITAKOA	EGINDAKOA
Sektore publikoaren diru laguntzak	334.986,00	299.508,34
Sektore pribatuaren diru laguntzak	0,00	0,00
Berezko jardueren salmentak eta zerbitzu prestazioak	43.000,00	108.316,57
Bestelako sarrerak		0
SARRERAK GUZTIRA	377.986,00	407.824,91

b) Erakundeak lortutako bestelako baliabide ekonomikoak:

BESTELAKO BALIABIDEAK	AURREIKUSITAKOA	EGINDAKOA
Fundazio zuzkidura		
LORTUTAKO BESTELAKO BALIABIDEAK GUZTIRA		

III. Jarduera planaren eta egindakoei buruzko datuen arteko desbideratzeak

Funtsezko desbideratzeak jarraian azaltzen dira:

- Enrique Lekuona Muñoz jaunaren kalte ordainketaren ondorioz 110.000 euroko ohiz kanpoko gastua.
- FOROaren lanak momentuz ez dira burutu beraz ez da gasturik egon.
- Visita gidatu eta dendaren ekimenen ondorioz zerbitzu prestakuntza eta salmentaren igoera.

12.2 Ondasun elementuak helburu propioetarako aplikatzea:

A.- Errenten eta sarreraren xedearen betetze maila

EKITALDIA	EKITALDI KO SOBERAKINA	DOIKUNTZA NEGATIBOAK	DOIKUNTZA POSITIBOAK	KALKULU OINARRIA	ERABILIKO DEN ERRENTA		EKITALDIAN HELBURUETARAKO ERABILITAKO BALIABIDEAK	BERE HELBURUAK LORTZEKO ERABILITAKO BALIABIDEAK		
					Zenbatekoa	%		2017	2018	Zintzilik gelditzen den zenbatekoa
2017	50.332,04		403.645,68	453.977,72	453.977,72	% 70	317.784,40	447.458,71		
2018	-40.133,75		449.677,16	409.543,41	409.543,41	% 70	286.680,39		446.130,56	
GUZTIRA	10.198,29		853.322,84	863.521,13	863.521,13	% 70	604.464,79	447.458,71	446.130,56	0,00

B.- Ekitaldian aplikatutako baliabideak

	ZENBATEKOA		
1. Helburuak betetzeko gastuak	444.412,06		
	<u>Fondo propioak</u>	<u>Diru laguntzak, dohaintzak eta legatuak</u>	<u>Zorra</u>
2. Helburuak betetzeko inbertsioak *			0
2.1. Ekitaldian egindakoak		1.718,50	0
2.2. Aurreko ekitaldietatik etorritakoak			0
a) Ekitaldian kitatutako zorrak			0
b) Aurreko ekitaldietatik etorritako diru laguntzen, dohaintzen eta legatuen egoztea			
GUZTIRA (1+2)		446.130,56	

* Araudiak xedatzen du fundazioaren helburuetarako erabilitako inbertsioak zenbait ekitalditan soberakinean banatu beharreko sarrerekin finantzatuak izan direnean (besteak beste diru laguntzak, dohaintzak eta legatuak) edo besteren finantzazio baliabideekin finantzatuak direnean, inbertsio horiek sarrerek zenbatu diren proportzioan edo besteren finantzazioa amortizatzen den neurrian zenbatuko direla.

Fundazioak bete egiten du Euskadiko Fundazioei buruzko derrigorrezko 30 artikulua ekainaren 17ko 12/1994 Legeak dioena bi arlo hauetan: batetik, sarreren % 70 gutxienez fundazioak nahi dituen helburuetarako erabiltzea (ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuaren 21. artikulua, Euskal Autonomi Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren eta Erregistroaren antolamendua eta funtzionamendua onartzen duena).

12.3 Administrazio gastuak:

Era berean, Fundazioak bete egiten du Euskadiko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legeak dioena honako honi dagokionez: administrazio gastuak ezin direla izan sarrera guztien % 20 baino gehiago (ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuaren 21. Artikulua, Euskal Autonomi Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren eta Erregistroaren antolamendua eta funtzionamendua onartzen duena).

Administrazio langileen kostuak	41.036,21
Zerbitzu independenteen kostuak	4.450,30
Bulego materialaren kostuak	1.681,00
KOSTUAK GUZTIRA	47.167,50

$$\frac{\text{Administrazio gastuak}}{\text{Gutzizko sarrerak}} = \frac{47.167,50}{407.824,91} = \% 11,57$$

(13) Fundazioaren Patronatuari buruzko informazioa

2018ko abenduaren 31n honako hauek osatzen dute ARMA PLAZA FUNDAZIOKO Batzar Nagusia:

Txomin Sagarzazu Ancisar	Patronatu Burua
Juan Luis Silanes Aguirre	Lehendakariordea
Jose Antonio Salaverria Osinalde	Idazkaria
Maria Serrano Olaskoaga	
Arantza Berrotaran Otegi	
Juan M ^a Altuna Muñoa	
Gotzone Larrarte Kanpandegi	
José Miguel Ochoteco Aguirre	
Jesús Ignacio Álvarez Yeregui	
Miren Lore Erriondo Yeregui	
Igor Enparan Araneta	
Juan Ortiz Armendariz	

2018ko ekitaldian Batzar Nagusiko kideek ez dute inolako ordainsaririk jaso. 2018ko abenduaren 31n ez dago Batzarreko kideei emandako aurrerakin edo krediturik, ez eta pentsio edo biritza aseguruaren gaineko obligaziorik ere.

Era berean, Batzar Nagusiko kideen eta ARMA PLAZA FUNDAZIOAREN artean ez dago inolako kontratuzko loturarik.

(14) Bestelako informazioa

14.1 Langileen banaketa

2018ko ekitaldian ez da inor kontratatu. Fundazioak ez du inolako langilerik kontratatuta besteren kontuko kontratazio erregimenean. Fundazioak badu kontratu bat Aldi Baterako Laneko enpresa batekin, eta harek ematen dizkio Fundaziorako lan egiten duten langileak.

14.2 Ingurumenari buruzko alderdiak

Erakundearen jarduera dela eta, beronek ez du ondarean, finantza egoeran eta egoera horren emaitzetan esanguratsuak izan litezkeen ingurumen izaerako ardura, gastu, aktibo, hornidura edo gorabeherarik. Horregatik txosten honetan ez da sartu ingurumen kontuei buruzko sailkapen berezirik.

(15) Inbentarioa

2018ko abenduaren 31an Inbentarioaren zehaztasunak aurrekoak dira:

AZALPENA	EROSTE DATA	KONTABILITATE BALIOA	AMORTIZAZIO METATUA	KONTABILITATE BALIO GARBIA
Aplikazio informatikoak	2012. urtea	3.580,00	3.580,00	0,00
Aplikazio informatikoak	2013. urtea	1.530,00	1.530,00	0,00
Bestelako instalazioak	2012. urtea	9.461,09	7.085,08	2.376,01
Bestelako instalazioak	2013. urtea	3.231,50	2.155,81	1.075,69
Altzariak	2012. urtea	3.031,09	2.345,98	685,11
Altzariak	2013. urtea	5.035,39	3.316,86	1.718,53
Altzariak	2014. urtea	2.160,59	1.185,47	975,12
Altzariak	2015. urtea	594,88	200,71	394,17
Altzariak	2016. urtea	2.801,58	505,78	2.295,80
Altzariak	2017. urtea	229,70	31,91	197,79
Altzariak	2018. urtea	7.214,51	492,17	6.722,34
Ekipo informatikoak	2012. urtea	3.733,10	3.733,10	0,00
Ekipo informatikoak	2013. urtea	8.008,00	8.008,00	0,00
Ekipo informatikoak	2014. urtea	278,00	278,00	0,00
Ekipo informatikoak	2015. urtea	734,34	555,90	178,44
Ekipo informatikoak	2017. urtea	1.839,20	52,06	1.787,14
IBILGETUA GUZTIRA	18/12/31N	53.462,97	39.829,79	13.633,18

PATRONATUBURUA/PRESIDENTE

IDAZKARIA/SECRETARIO

Izp/Fdo: Txomin Sagarzazu

Izp/Fdo: José Antronio Salaverria

ARMA PLAZA FUNDAZIOA

2018

AURREKONTUAREN LIKIDAZIO BATERATUA LIQUIDACION DEL PRESUPUESTO

SARREREN EGOERA - 2016+2015KO EKITALDIA - LIKIDATUTAKO ESKUBIDEAK			
ESTADO DE INGRESOS - EJERCICIO 2018 - DERECHOS LIQUIDADOS			
Kapitulua <i>Capitulo</i>	2018	2016	2015
1.- Zuzeneko zergak <i>Impuetos directos</i>			
2.- Zeharkako zergak <i>Impuetos indirectos</i>			
3.- Tasak eta bestelako sarrerak <i>Tasas y otros ingresos</i>	104.086,86	66.760,77	52.804,59
4.- Transferentziak arruntak <i>Transferencias corrientes</i>	303.738,05	322.600,77	288.086,05
5.- Ondarezko sarrerak <i>Ingresos Patrimoniales</i>			
Sarrera Arruntak Guztira Total Ingresos Corrientes	407.824,91	389.361,54	340.890,64
6.- Inb. Errealak inorenganatzea <i>Enaj.inversiones reales</i>			
7.- Kapital-transferentziak <i>Transferencias de capital</i>	7.214,51	2.801,58	1.329,22
8.- Finantza-aktiboak <i>Activos financieros</i>			
9.- Finantza-pasiboak <i>Pasivos Financieros</i>			
Kapital Sarrerak Guztira Total Ingresos de Capital	7.214,51	2.801,58	1.329,22
SARRERAK GUZTIRA TOTAL INGRESOS	415.039,42	392.163,12	342.219,86

2018

AURREKONTUAREN LIKIDAZIO BATERATUA LIQUIDACION DEL PRESUPUESTO

GASTUEN EGOERA - 2018 EKITALDIA - OBLIGAZIO LIKIDATUAK			
ESTADO DE GASTOS - EJERCICIO2018 - OBLIGACIONES LIQUIDADAS			
Kapitulua Capitulo	2018	2016	2015
1.- Langileriaren gastuak <i>Gastos de personal</i>			
2.- Ond.arr.en eta zerb.en gast. <i>Gastos b. Corr.y servic.</i>	449.992,89	295.790,22	347.783,58
3.- Fianatza-gastuak <i>Gastos financieros</i>			0,00
4.- Transferentziak arruntak <i>Transferencias corrientes</i>			0,00
Guztira Gastu Arruntak Total Gastos Corrientes	449.992,89	295.790,22	347.783,58
6.- Inbertsio errealak <i>Inversiones reales</i>	7.214,51	2.801,58	1.329,22
7.- Kapital-transferentziak <i>Transferencias de capital</i>			
8.- Finantza-aktiboak <i>Activos financieros</i>			
9.- Finantza-pasiboak <i>Pasivos financieros</i>			
Guztira Kapital Gastuak Total Gastos de Capital	7.214,51	2.801,58	1.329,22
GASTU GUZTIRA TOTAL GASTOS	457.207,40	298.591,80	349.112,80

LIQUIDACION ARMA PLAZA FUNDAZIOA 2018

1.- Altxortegiko izakin likidoak, 18-12-31n: <i>Fondos líquidos de Tesorería a 31-12-18</i>	8.760,23
2.- Kobratu gabeko saldoak, 18-12-31n: <i>Saldos pendientes de cobro a 31-12-18</i>	31.678,87
Aurrekontuko zordunak: <i>Deudores presupuestarios:</i>	6.289,92
Aurrekontuz kanpoko zordunak: <i>Deudores extrapresupuestarios:</i>	25.388,95
(Ken) aplikatu gabeko kobrantzak: <i>(Menos) cobros pendientes aplicaciones:</i>	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 18-12-31n: <i>Saldos pendientes de pago a 31-12-18:</i>	38.139,73
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak: <i>Acreeedores presupuesto gastos:</i>	35.512,21
Sarrereren aurrekontuko hartzekodunak: <i>Acreeedores presup.ingresos:</i>	0,00
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak: <i>Acreeedores extrapresupustarios:</i>	2.627,52
4.- Altxortegi-gerakin gordina (1+2-3): <i>Remanente de Tesorería bruto (1+2-3):</i>	2.299,37
5.- Saldo kobragaitzak: <i>Saldos de dudoso cobro:</i> Sarrereren gerorapenak / <i>Aplazamientos de Ingreso:</i>	0,00
6.- Altxortegi-gerakin likidoa (4-5): <i>Remanente de Tesorería líquido (4-5):</i>	2.299,37
7.- Finantzaketa lotua duten gastuetarako altxortegi-gerakina: <i>Remanente de Tesorería para gastos con financiación afectada:</i>	0,00
8.- Gastu orokorretarako altxortegi-gerakina (6-7): <i>Remanente de Tesorería para gastos generales (6-7):</i>	2.299,37

9.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	
<i>Resultado operaciones presupuest.del Presupuesto vigente:</i>	-42.167,98
10.- Aurreko ekitaldietean likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	
<i>Resultado operaciones de presupuesto liquidados en ejerc.anter.:</i>	0,00
11.- Doiketak, altxortegi-gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik: :	
<i>Ajuste obligaciones financiadas con Remanente.de Tesorería:</i>	-5.580,83
12.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	
<i>Ajuste desviaciones en gastos con financiación afectada</i>	
13.- Aurrekontu-emaitza (9+10+11+12): :	
<i>Resultado presupuestario (9+10+11+12):</i>	-47.748,81
14.- Txerta daitezkeen kreditu-gerakinak:	
<i>Remanentes de créditos susceptibles de incorporación:</i>	
15.- Txertatu ezin diren kreditu-gerakinak:	
<i>Remanentes de créditos no incorporables:</i>	
16.- Kreditu-gerakinak, guztira (15+14):	
<i>Total Remanentes de crédito (14+15):</i>	

Prueba del Remanente

Remanente al 31.12.17	50.322,63
Resultado presupuestario 2018	-47.748,81
	<u>2.573,82</u>
Remanente al 31.12.18	2.299,37
	274,45

ARMA PLAZA FUNDAZIOA

	2016	2018
Total Ingresos Presupuestarios	392.163,12	415.039,42
Total Gastos Presupuestarios	298.591,80	457.207,40
RESULTADO PRESUPUESTARIO	93.571,32	-42.167,98

Conciliación entre Resultados

Amortizaciones	-7.021,91	Gasto P/L	-5.159,10
Subv capital	1.358,31	Ingreso P/L	1.718,50
Subv capital	-2.801,58	Son ingreso pptario no patrim	-7.214,51
Variac. Exist.	-1.644,83	Menos gasto P/L	5.580,83
Difer periodif	2.000,00	Ingreso P/L	
Difer periodif	-66.535,00	menos ingreso P/L	
Provisión para Insol	0,00	Menos gasto P/L	
Excedente ejercicio		En patrim. Neto	
Cap 6 Inv. Reales	2.801,58		7.214,51
	-71.843,43		2.140,23
Resultado patrim	21.727,89		-40.027,75
	21.727,89		-40.027,75
	0,00		0,00